tratu txarrak / maltrato — NAHIKO! 3-4 — berdintasuna / igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna — EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo — GOBIERNO VASCO

# KOMUNIKA-BIDEAK

## NAHIKO! 3-4

**5** UNITATE DIDAKTIKOA

# FAMILIAREN KOADERNOA 15

**Familia agurgarria:**

Nonahiko komunikabideek **eginbehar hezigarri garrantzitsu bat** betetzen dute gure gizartean. Onerako eta txarrerako, benetako gizarte eskola dira. Orokorrean, gizartean nagusitzen diren gaiak, balioak eta ereduak islatu eta erakusten dituzte eta, batzuetan, hauen alternatibak jaso edo proposatzen dituzte. Gure seme-alabek bertan ikusi eta ikasten **dituzte gizartean presentzia, harremanak, arrakasta eta porrota izateko oinarrizko ereduak**.

Eredu hauek ezberdinak dira neskentzat eta mutilentzat. Orokorrean, hedabideek gizonen ekintzak, kezkak, gustuak, interesak, balorapenak, e.a. azaleratzen dituzte**, biztanleriaren beste erdia, emakumeak eta beren nahi eta ekarpenak, ikustezinaraziz**.




Tratu onak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, gure seme-alaben bizitza-proiektua aurrera eramateko aukera berdintasuna eta oka berdearen berdintasunaren ibilbidea ezinezkoa dira baldin eta komunikabideen partxisak ez baditu **berdin eta era berean ikustarazten emakumeak eta gizonak**.

Hedabideen eragina gero eta handiagoa da gure seme-alabengan. Zenbat eta handiagoak orduan eta errezago eta autonomoagoak komunikabideeak erabiltzeko. **Berdintasunaren ikuspuntutik ikusten eta irakurtzen erakustea** bizitza justuago bat eta tratu onetan bizitzeko aukera eskeintzea da.

**IZENA**

# 1 KOMUNIKABIDEEN PARTXISA



Etxekoen laguntzarekin, kokatu itzatzu behekaldeko emakumeen izenak, bakoitza bere arloan.
Gehitu itzazue beste emakume batzuk arlo bakoitzean.
Zein arloan kokatu dituzue emakume gehien?. Zein arloan gutxien?.
Zergatik?

ANGELINA JOLIE

BEYONCÉ

BRITNEY SPEARS

CARLA BRUNI

CATWOMAN

CHRISTIANE NÜSSLEIN-VOLHARD

CLEOPATRA

DIANA SPENCER

ELVIRA LINDO

GLORIA FUERTES

HILARY CLINTON

INDIRA GANDHI

JANET JACKSON

JENNIFER ANISTON

LUCRECIA

MADONNA

MAFALDA

MATA HARI

MATILDA

MERCEDES MILÁ

NURIA ROCA

ROSANA

TUNEKO OKAZAKI

YELENA GADZHIYEVNA




**Zenbat emakume arlo bakoitzean? Eta guztira?**
**Gizonezko gehiago idatziko zenituzkete? Zergatik?**

# ALBISTEA DIREN EMAKUMEAK: NOR DA NOR?

Osatu ezazue beheko taula, eskubian dituzun bederatzi emakume euskaldunekin, bakoitzaren izena dagokion albistearen ondoan idatziz.

LOURDES IRIONDO
JOSUNE BEREZIARTU
EDURNE ORMAZABAL
IDOIA ZENARRUZABEITIA
AMAIA MONTERO
MARTA ETURA
JOANE SOMARRIBA
AHOTSAK
ASUN BALZOLA

| | |
|---|---|
| **Txirrindularia. Frantziako Tourra hiru bider irabazi zuen, Italiako Giroa bi bider eta Munduko Txapelketa behin.** | |
| **Eskalatzailea, Espainiako Txapelketa sei bider irabazi zuen. Espainiako eta munduko hainbat errekorra lortu zituen.** | |
| **Ilustratzaile, idazle eta itzultzailea. Publizitatean eta disenu grafikoan ere aritu zen.** | |
| **Euskadiko Lehendakariordea. Ogasun eta Herri Administrazio sailburua.** | |
| **Kantaria. “Ez dok hamairu” taldeko kidea hasieratik. Idazlan batzuk ere argitaratu zituen.** | |
| **Aktorea. Goya Sarietarako hiru bider hautagaitu dute.** | |
| **Bakearen aldeko euskal emakume politikariak.** | |
| **Donostiako zinemaldiko ohizko aurkezlea. Telebista eta irratiko aurkezlea.** | |
| **Urte batzuetan La Oreja de Van Gogh musika taldearen abeslaria, 2008an bakarrik abesteari ekin dio.** | |

# 2 KOMUNIKABIDEEN EREDUAK

Aukeratu itzazue zuen ustez eredu imitagarriak eta komunikabideetan maiz agertzen diren bi emakume eta bi gizon eta osatu taula hau:

| | IZENA | ZERGATIK DA ALBISTEA? | ZERGATIK DA EREDUGARRIA? |
|---|---|---|---|
| EMAKUMEAK | | | |
| | | | |
| GIZONAK | | | |
| | | | |

Begiratu itzazue etxean dituzuen aldizkariak eta osatu ezazue beheko taula: zenbat lerroburu eta argazkietan agertzen dira emakumeak eta zenbatetan gizonak?. Ba al da alderik ? Zergatik?

| ALDIZAKRIAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | EMAKUMEAK ETA GIZONAL | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | TITUL. | ARGAZ. | TITUL. | ARGAZ. | TITULARRAK | ARGAZKIAK |
| Orokorrak, egunkarien astekariak... | | | | | | |
| Kirolak, motorrak, autoak... | | | | | | |
| Gizartea, jendea, esamesak... | | | | | | |
| Familia, umeak, etxea, sukaldea... | | | | | | |
| Zinema, literatura, historia, bidaiak... | | | | | | |